

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



### **JOLASTOKIETAKO IGOGAILURAKO LIZITAZIO-PREZIO BERRIA**

**Igogailua lehiaketara atera da 558.000 €-tan**

Udalak lehiaketara atera du berriro Jolastokietako igogailua, 558.000 €-ko lizitazio-prezioarekin. Bigarren saiakera horren aurretik, lehen lehiaketan lizitatzailerik ez egotea gertatu zen, pandemia garaian materialen prezioak gora egin zuelako, altzairua kasu.

Hiri Proiektuetako zinegotzi Duñike Agirrezabalaga sozialistak adierazi duenez, “100.000 euro gehiago izango ditu lehiaketak. Materialen kostua eguneratzea dakar. Igogailu honek hamar metroko desnibela gaindituko du Bertsolari Txirrita pasealekuaren eta Larratxo pasealekuaren artean, hiru geltoki izango ditu eta zortzi lagunentzako kabina panoramiko bat izango du. Igogailua urtebete barru martxan egongo da.”

Gainera, egungo eskailerak hobetuko dira eskubanda bikoitzekin, malda hobetuko da euri-ura husteko, eta zoladura hobetuko da.